

EGUNEN BATEN

Ekiñe Aristizabal Tolosa, 16 urte

Oiartzun

Egunen baten desagertuko da
nire bihotzeko orbaina.

Oinazea motela da
itsasoak sendatuko du baina,
sikatuko du eguzkiak,
eramango du haizeak,
garaituko loak.

Isiltasuna kantu baizen zure ondoan,
itsaso bareak gau luzeak zure altzoan.
Itsaso sakonak, gaziak, zakarrak,
gure itsasoak.

Zurekin zeharkatu nahi izan nituen ozeanoak.

Eta ilargi betea oparitu zenidan,
maiteminduen larrosa ilezkorra bailitzan,
ez dakit biluzik zegoen larrosa zen

edo soineko bakarra zeukan.
Eta laga zenidan zinez azaltzen
zenbat zintudan maitatzen.
Orain ez iezadazu hori eskatu,
ez iezadazu ilargi beterik eskatu,
iluntasunean nagoenez, neronek ez baitut,
zeruari kentzeak barkamenik ez du.

Ametsak ekoizten zituen
zure garuneko fabrikak,
zeintzuk ziren niretzat opariak.
Orain nik ez dut amesterik,
zure albora itzultzerik,
nire amets guztiak isuri egin baitira
zu joan zinenetik.
Ilargiaren botila ireki genuen
eta zeru osoa edan elkarrekin,
topa eginez muxuen urarekin.
Orduan ulertu nuen hain dela handia maitatzea,
ezen, edaten ematen badigu ere,
ez duela lortzen gure egarria asetzea.

Nintzena eta neukana eman nizun,
negu gorrian lorez beteriko lorategia,
esku huts bi zure gorputzetik badaude urrun.
Neukana eta nintzena eskaini nizun,
itsaso urdina desertu batean.
Baina ipuin honen amaiean,
ohartu naiz azkenean,
ez dagoela amai zoriontsurik,
zu gabe ez dagoela amodio perfekturik,

zuk ez duzula urteak amaigabe egiterik,
berriz ere ez dela gau ilezkorrik sortuko
itsaso bareetatik.

Zu ez zaudenean jendea ez da inor,
sentitzen naiz bakarrik, ausaz idor.
Horrela ez dut jarraitu nahi,
bada nire bihotz gajoak
jaberik gabeko maitasun baten erritmoan
taupadaka darrai.
Orain jakin nahi nuke nork egin zuen infernua
biok elkarrekin edan genuen zerua.
Orain botilen hondoan bilatzen dut
zure begi orlegien lilura,
zure beso artean topatzen nuen
babes mugagabe hura.

Gaur hostorik gabe geratu bada ere nire arima,
bada zuk oparitutako larrosa
idortzen hasia da,
loratuko da berriz ere udaberria.
Ez baitzara beti itsaso izango
nire bihotzeko portuan,
eta orduan irits liteke
berriz ere ene udaberri loratua.

Egundo zu zara ene bihotzaren jabe
eta dakizkidan elerik egiazkoenak dira hauek,
niri sinestea badidazu zin egiten,
esan behar dizut
ezingo zaituela inork nik adina maite;

eta zu prest bazeunde,
mundu osoa gugandik aparte utziz,
zure bihotza berriz irekiz,
bertan utziko nukeela nire maitasunik sakonena
bigarren aldiz.